

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHU_n AZPIEGITURA ZIENTIFIKOA ETA FUNTS
BIBLIOGRAFIKOAK EROSI ETA BERRITZEKO
LAGUNTZEN DEIALDIA (2026)**



ATARIKOA

Ikerkuntzaren sustapena eta garapena funtsezko ardatzak dira unibertsitatearen jardunean. Ekintza honen helburua da tresneria espezializatua areagotu eta ikertzaileen esku jartzea, era honetara, ikertaldeek edo ikerketa ekipoen gaitasuna handituz eta tamaina txiki eta ertaineko tresneriaren sorkuntza eta mantentze-lana sustatuz.

Xede honetarako 450.000 euro bideratuko dira, 2023-2026 Unibertsitate Planeko Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako kontratu programaren barruan, bikaintasuneko ikerkuntzaren, "Abangoardiako ikerketa bultzatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak babestea, arreta berizia jarritz Osasunaren eta Hezkuntzaren eremuetan". Kopuru hau aldatu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izateen arabera.

Horrela, bada, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) ontzat eman eta gero Ikerketa Errektoreordetzak erabaki du argitara ematea UPV/EHUrako ekipamendu zientifikoaren eta funts bibliografikoen erosketa eta berritzea finantzatzeko laguntzen 2026eko deialdia.

1. oinarria.- DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da UPV/EHUn Sail, Institutu eta Ikerketa Intentsiboko Zentro propioetako ikerketa-taldeek ekipamendu zientifikoak eta funts bibliografikoak erosketa kofinantzatzea. Eskaria egiten duen ikertaldeak finantzazio propioa izan beharko du eskatutako materiala erosteko, gutxienez ekipamenduaren edo funts bibliografikoaren kostuaren % 15 ordaintzeko beste, BEZ gabe.

Materiala abian diren ikerketa jarduerak garatzeko erabiliko da, honako helburu hauek betetzeko:

- Tresneria moderno eta eraginkorra eskuratzea.
- Tresneria berritzea, oraingo ikerketa ildoetarako balio ez duelako edo, kasurik txarrenetan, deskatalogatuta egoteagatik zerbitzu teknikorik ez daukalako zaharkituta geratu dena.

Ekipamendu zientifikoak barne hartzen ditu ikerketako ekipamendurako erabilera espezifikoak duen kostu handiko softwarearen lizentziak, software libreko edo doako lizentziarik ez balego.

2. oinarria.- MODALITATEAK

Laguntzak honako helburuotarako emango dira:

A. Tresneria zientifiko berria erostea. Modalitate honetan, eska daitekeen gehieneko subentzioa 60.000 eurotako izango da. Bertan sartzen dira, halaber, beren izaeragatik ikerketa egiteko beharrezkoak diren equipo informatikak edo softwarea. Halako ekipamendua finantzatzeko eskaerarekin batera, beharrezkoak diren justifikazio tekniko egokia aurkeztuko da, baita behar horrek ikerketa proiektu zehatzekin duen zerikusia ere. Hori guztia IKTen Gerenteordetzako zerbitzu teknikoek aztertu ahal izango dute, deialdi honi hel diezaioketen ala ez erabakitzeko.

Kanpoan geratuko dira obra zibila, aire egokiturako aparatuak eta altzariak, bai eta ohiko ekipamendu informatiko ere (ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, inprimagailuak, eskanerrak, eta abar).

Eskatutakoaren antzeko ezaugarriak eta aplikazioa dituen ekipamendua baldin badago SGIker unitate batean, zergatik berri behar den justifikatu behar da. Hala egin ezean, eskaera baztertu egingo da.

B. Berritzea ekipa zientifiko zaharkituak eta, bereziki deskatalogatuta dauden ekipoak eta gaur egun erosiz gero 20.000 euro baino gehiago balio izango luketenak. Modalitate honetan, eska daitekeen gehieneko subentzioa 60.000 eurotako izango da.

C. Funts bibliografikoak. ikerketa proiektuak egiteko behar diren liburu multzo edo bilduma sail edo institutuen ohiko funtsekin ordaindu ezin direlako, arlo horretako funts bibliografikoen

batez besteko prezioa gainditzen dutelako edo UPV/EHUko Bibliotekan ez daudelako. Inola ere ez da diru laguntzarik emango aldizkarietako harpidetzak egiteko. Gehienez 10.000 eurotako diru laguntzak emango dira.

3. oinarria.- PERTSONA ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

Ondokoak izan daitezke honako deialdi honetan aurreikusten diren laguntzen eskatzaile:

3.1. Jarraian zehaztutako UPV/EHUREKIKO lotura motari buruzko baldintzaren bat betetzen duten eta abian dauden proiekturen batean edo UPV/EHUREN ikertalde aktiboren batean parte hartzen duten ikertzaileek osatutako ikertaldeak:

- a. UPV/EHURI modu iraunkorrean lotutako pertsonal lan-kontratadunak edo funtzionarioak; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluaaren modalitatean kontratatutako langileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramón y Cajal programako UPV/EHUn kontratatutako langileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; UPV/EHURI atxikitako Ikerbasque programako langileak; irakasle atxikiak, edo aurretik plaza iraunkor bat egiaztatu dutenak eta irakasle laguntzaile doktorea.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia eta teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUREKIN lotura duten ikertzaileak. Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileen kasuan, beren doktorego tesiaren zuzendariak ere proiektuaren taldeko kide izan behar du.
- c. Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera, ikerkuntzarako lankide akademikoak.

Aurreko hiru ataletan zerrendatutako edozein taldetako pertsonal ez-iraunkorren kasuan, UPV/EHUREKIKO kontratuak edo loturak gutxienez 2027ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izan beharko du.

3.2. Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu, egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- i. Epai irmoz kondenatuta daudenak diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- ii. Diru laguntzaren bat itzultzera behartuta egonik, diru guztia itzuli ez dutenak.
- iii. Ebazpen irmo bidez zigortuta daudenak, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

3.3. Gutxienezko ikertalde eskatzailea hiru ikertzailek osatuko dute eta horietako bi 3.1.a atalean adierazitako kolektiboetakoak izan beharko dira.

3.4. Talde eskatzaileko kide bat eskabidearen ikertzaile nagusi izendatuko da. Ikertzaile nagusi horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

- i. 3.1.a. paragrafoan aipatutako kolektiboetako batekoa izatea.
- ii. Doktorea izatea.
- iii. UPV/EHUREKIN enplegu harremana izatea eta arduraldi osoan aritzea. Salbuespen gisa, ikertzaile nagusi izendatu ahal izango dira UPV/EHURI atxikitako Ikerbasque programako langileak, nahiz eta UPV/EHUREKIN arduraldi osoko enplegu harremanik ez izan.

Ikertzaile nagusi izendatutako pertsona UPV/EHURI atxikitako Ikerbasque programako langilea bada, eta UPV/EHUREKIN enplegu harremanik ez badu,

talde eskatzailea osatzen dutenen artetik beste pertsona bat izendatuko da, talde eskatzailea osatzen duten artetik, 3.1.a atalean aipatutako pertsona batekoa, eta
UPV/EHUko antolaketa unitate berekoa (saila, institutua edo antzekoa) izango da, laguntzaren administrazio kudeaketarako bigarren ikertzaile nagusi gisa, laguntza emanez gero. Beraz, gutxieneko taldeak baldintza hori betetzen duen pertsona bat izan beharko du gutxienez.

- 3.5. Ikertzaileek ezin dute parte hartu modalitate batean baino gehiagotan aldi berean.
- 3.6. Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu 2024ko deialdian finantzazioa izan duten ikertaldeetako ikertzaileek.

4. oinarria.- DIRU LAGUNTZEN EZAUGARRIAK ETA ZENBATEKOA

- 4.1. A eta B modalitateetako eskaerak ekipamendu osoak lortzeko dira eta ezin da horien zati bat erosteko eskaerarik aurkeztu.
Horrez gain, eskaeran eskatutako ekipoa jartzeko tokia badagoela adierazi beharko da.
- 4.2. Bestalde, funts bibliografikoak erosteko eskaeretan, C modalitatekoetan, obren izenburuak, egileak, argitaratzaileak eta, oro har, obrak identifikatzeko datu guztiak eman beharko dira.
Eskaera horiekin batera, UPV/EHUko Bibliotekaren ziurtagiri bat aurkeztuko da, eskatutako funtsen egokitasunari buruzkoa.
- 4.3. Emandako dirulaguntzak, gehienez ere, eskatutako ekipamendu edo bibliografia-funtsaren kostuaren % 85 finantzatuko du A eta C modalitateetarako, eta % 90 B modalitaterako, bi kasuetan BEZik gabe.
- 4.4. Ikertalde eskatzaileak eskuragarri izan beharko ditu ekipamendua kofinantzatzeko funtsak, eskaerak aurkeztu unetik deialdia ebatzi arte, honako baldintza hauekin bat etorrira:
- a) Ekipamendua finantzatzeko funtsak gastuen edozein kapitulutan egon daitezke. Eskaera jasotzean, funts hauek blokeatu egingo dira kontabilitatean.
 - b) Ez da onartuko beste deialdi batean egindako finantzazio eskaeretatik ustez lortuko diren funtsak jartzea.
 - c) Ekipamendua finantzatzeko funtsen jatorri diren deialdiek funts horiek xede honetarako erabili ahal izatea onartu behar dute.
 - d) Ez da baterako finantzaziotzat hartuko aurretiaz dagoen ekipamendua, bere izaera dela eta, erosi nahi denaren osagarri izan daitekeena.
- 4.5. Deialdi honen bidez emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira bestelako laguntzekin, hauen ezaugarriak edozein direla ere eta alde batera utzita zein erakundek eman dituen, baldin eta laguntza guztiak batuta erosketaren kostua gainditzeko ez badute. Ikertalde eskatzaileak adierazi beharko du zein laguntza lortu edo eskatu dituen helburu bererako, bai espedienteari hasiera ematean eta bai aurrerago ere, eta gorago azaldutako baldintza betetzeko diru laguntzari egin dakizkiokeen murrizketak onartuko ditu.
- 4.6. Deialdi honen bidez emandako laguntzaren xedea edozein dela ere, 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, laguntza eskuratu ondoren, UPV/EHUren instalazioetan kokatu beharko da fisikoki, eta, haren izaerak ahalbidetzen badu, UPV/EHUren Inbentario Ofizialean erregistratu beharko da, IP eskatzailearen sailari atxikia.
- 4.7. 100.000 euro gordeko dira Ikerketa Intentsiboko Zentro Propioetik datozen eskaeretarako, betiere 7.4 oinarrian ezarritako finantziario-baldintzak betetzen

badituzte. Ikerketa Intentsiboko Zentro Propioentzat gordetako kreditua agortzen ez bada, kupo orokorrean dagoen kredituari gehitzen ahalko zaio.

5. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEA

- 5.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta 2024ko irailaren 11ko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren Ebazpenean (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko bitarteko elektronikoein funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen duena) ezarritakoarekin bat etorriz, eskabidea UPV/EHUren egoitza elektronikoa (<https://egoitza.ehu.eus>) ezarritako epean aurkeztu beharko da, eta "ESKATU" eremuan "**2026 Azpiegitura**" erreferentzia eta "Ikerketa errektoreordetza – UPV/EHUko ikerketa-deialdiak (U02000256)" unitatea adierazi beharko dira.

Horretarako, egoitza elektronikoa jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

- 5.2. Honako dokumentu hauek aurkeztuko dira **PDF formatuan**:

- a) **Eskaera orria**, eredu arautua erabilia; ereduak Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean dago eskuragarri.
Eskaeraren zati eta gutxieneko edukitzat hartuko da orri hau, eta ezingo da zuzendu. Beraz, behin aurkeztu eta gero, eskatzaileak ezin izango du dokumentuaren edukia, ez eta ekipo eskatzailearen osaera ere. Eskatzailearen batek ez baditu baldintzak betetzen, deialditik at geratuko da, eskariaren arduradunari jakinaraziko zaiolarik.
- b) **Funtsak erabili ahal izateko baimena**, baterako finantzazioaz arduratzen den unitate organikoko ikertzaile nagusia ikertaldeko kide ez denean.
- c) B modalitateko eskaeren kasuan, **ondarean baja emateko baimena**, UPV/EHUren inbentario ofizialetik ekipo zaharkitua erretiratu dadin. Dokumentu hau laguntza eskatu duen eta ekipamendu zaharkitua kokatuta dagoen sail edo institutuko zuzendariak sinatu beharko du.
- d) **Memoria**, Ikerketa errektoreordetzaren webgunean eskura daitekeen inprimaki normalizatua erabilia; bertan, ekipamendu hori zer ikerketa proiektutan, nola abiatutakoetan hala eskaturikoetan, erabiliko den adieraziko da espresuki. Dokumentu hau eskaeraren zatitzat eta gutxieneko edukitzat hartuko da, zuzendu ezin izango dena.

Horrez gain, memorian ekipamenduaren ezaugarri teknikoak deskribatu behar dira, marka edo modelo zehatzik jarri gabe; deskribapen hori ekipamenduaren hornikuntza kontratatze prozesurako beharrezko dokumentazioa prestatzeko erabiliko da.

Memoria ingelesez aurkeztuko da, eta, gainera, EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da, euskaraz eta gaztelaniaz.

- e) Gutxieneko ikertaldea osatzen duten ikertzaileen **curriculum vitae laburtua (CVA)** ingelesez aurkeztuko da. Pertsona bakoitzak dokumentu bat aurkeztuko du.
- f) Ekipoa hornituko duen merkataritza enpresaren **eskaintza edo proformako faktura**, eskaturiko materialaren ezaugarri teknikoak eta prezioa, BEZ barne, azalduz. Eskaintza bat baino gehiago jasotzen badira, horiek artxibo bakar batean

jaso behar dira.

g) **Sailaren baimena** eskaera aurkezteko

Sinadura bat edo gehiago behar dituzten dokumentu guztietan, **sinadura** horiek **elektronikoak** izan beharko dute beti, eta **onartutako ziurtagiri batek bermatu** beharko ditu ([Ebazpena, 2024ko irailaren 11koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Universidad del País Vasco/Eusal Herriko bitarteko elektronikekin funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen duena](#)).

6. oinarria.- ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea **2026eko otsailaren 10ean** hasiko da, eta **2026ko otsailaren 27an** amaituko da.

7. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

- 7.1. Ikerketa Errektoreordetzak egingo ditu deialdi honetako laguntzen kudeaketa lanak, Ikerketaren gestioa zuzendaritzaren bidez.
- 7.2. Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du Ikerketa Errektoreordetzaren web gunean, eskaera bakoitzak zer falta duen zehaztuz. Hamar egunen epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko. Epe hori igarota ez bada akatsa zuzendu, ulertuko da eskaria bertan behera utzi direla.
- 7.3. Eskabideen ebaluazioa, ahal dela, Euskal Sistemaren Kalitate Agentziaren (UNIBASQ) edo antzeko ezaugarriak dituen beste agentziaren baten bidez egingo da, eskaeraren arduraduna den ikertaldeko ikertzaile nagusiak aukeratutako ebaluazio arloan. Ahal izanez gero, ebaluazioa eskaera aurkeztu den hizkuntza koofizialean egingo da. Ebaluazioak euskaraz/gaztelaniaz ezin badira egin, hizkuntza hori ezagutzen duten ebaluatzaile espezialisten faltagatik, ingelesez aurkeztutako memoria erabiliko da.
- 7.4. Diru laguntzak esleitzeko, honako **irizpide hauek** erabiliko dira:
 - 7.4.1. Eskaeraren beharraren justifikazioa (0-40 puntu)
 - a. Eskaturiko ekipoaren edo funts bibliografikoen erabilerrari buruzko informazioa. Esaterako, erabilera maila, horiek erabili izan dituzten ikertzaileak, inguruan diren antzeko ekipo edo funtsak, eta abar (10 puntu).
 - b. Eskaturiko ekipoa edo funtsak zenbateraino diren egokiak edo beharrezkoak horien erabilera eskatzen duten ikerketa ildoetarako, helburuak lortzeko eta ikerketarekin jarraitzeko (10 puntu).
 - c. Eskaturiko ekipamenduarekin edo funtsekin garatu beharreko jardueren bidez lortu nahi diren emaitza zientifikoak eta horiek gizarte eta ekoizpen inguruan izango dituzten ondorioak (10 puntu).
 - d. Ekipamendua erabiliko duten ikertzaileek eta talde/proiektuen ikerketa-lerroekin dagoen lotura (10 puntu).
 - 7.4.2. Ikertaldearen zientzi ibilbidea (0-40 puntu)
 - a. Eskatzaileek azken 5 urteotan lortutako emaitza zientifikoak. 10 ekarpen garrantzitsuenak bakarrik baloratuko dira (10 puntu).
 - b. Gutxieneko ikertaldearen curriculum vitae laburtua (20 puntu).
 - c. Eskatzaileek azken 5 urteetan parte hartu duten ikerketa proiektuak/kontratuak. 10 proiektu edo kontratu garrantzitsuenak bakarrik baloratuko dira (10 puntu).
 - 7.4.3. Batera finantzatzeko ahalegina (0-20 puntu)

Ebaluazio prozesuan, faktore esanguratsua izango da baterako finantzaziorako aukera, baldin eta deialdian ekipamendua erosteko eskaturiko gutxieneko kopurutik

gorakoa bada.

Atal honen balioespena honako irizpide hauekin bat etorrita egingo da:

- **A Modalitatea** – Ekipamendu zientifiko berria erostea eta **C Modalitatea** – Funts bibliografikoak edo datu-baseak erostea
 - Baterako finantzazioa ≤ 15 : 0 puntu
 - $>15 - <75$: baterako finantzazioa $[(\% \text{ baterako finantzazioa} - 15)/3]$ puntu
 - Baterako finantzazioa ≥ 75 : 20 puntu
- **B Modalitatea** – Berritzea:
 - Baterako finantzazioa ≤ 10 : 0 puntu
 - >10 baterako finantzazioa <70 : $[(\% \text{ finantzaketaren} - 10)/3]$ puntu
 - Baterako finantzazioa ≥ 70 : 20 puntu

7.4.4. Eremua: Eskabideei 2 puntu gehiago emango zaizkie, baldin eta eskabidearen arduradun gisa jarduten duen pertsonak aukeratutako ebaluazio-arloa Osasunaren edo Hezkuntzaren arlokoa bada (kasu horretan, lortutako azken puntuazioa 100etik gorakoa izan daiteke).

Ezin izango dira finantzatu 7.4.1 eta 7.4.2 irizpideetan lortutako emaitzak batu ondoren 60 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskabideak.

8. oinarria.- EBAZPENA

- 8.1. UPV/EHUren IGBBk, egindako ebaluazioei buruzko txostenak ikusita, finantzatu beharreko eskaeren zerrenda lehenetsia osatuko du, gomendatutako aurrekontuak barne, eta Ikerketa errektoreordeari igorriko dio, beronek eman beharreko erabakia eman dezan. Diru laguntza edo subentzioen zenbatekoa ebaluazio irizpideen eta aurrekontuak ematen dituen ahalbideen arabera izango da.
- 8.2. Ikerketa errektoreordearen erabakiaren bidez argitaratuko da laguntza hauek emateko behin-behineko erabakia.
- 8.3. Eskatzaileek 10 egunen epea izango dute, gehienez eta proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, onartzen dutela edo uko egiten diotela adierazteko, edo egokitzea jotako alegazioak aurkezteko.
Alegazioak arrazoiatzeko, zein bere eskariaren ebaluazio txostena bidaliko zaio ikertzaile nagusiari. Alegazioen dokumentua 5.1 oinarrian deskribatutako prozedura berari jarraituz aurkeztuko da, eta AZALDU eremuan honako hau adieraziko da: "Alegazioak Azpiegitura 2026"
Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko erabaki proposamena onartutzat joko da, eta interesdunak alegatzeko bere eskubidea indarrik gabe geratu dela ulertuko da. Alegazioak IISIGek aztertuko ditu eta Ikerketa errektoreordeari jakinaraziko dio azterketa horren emaitza, errektoreordeak behin-betiko erabakia eman eta argitaratu dezan Laguntza hauek emateari buruzko ebazpena Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da eta eskatzaile bakoitzari banako ebazpena igorriko zaio.

Emaniko diru laguntza eskaturikoa baino txikiagoa denean, talde eskatzaileko ikertzaile nagusiak Ikerketaren Gestiorako Zuzendaritzari finantzazio osagarria, hau da, eskatutako finantzazioaren eta emandakoaren arteko aldeari dagokiona, zein organikotan dagoen jakinarazi beharko dio aipatutako epean. Informazio hori epe horren barruan jaso ezean, eskaera ezetsitatzat joko da.

- 8.4. Banakako erabakiaren kontra berraztertzeke errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren 1eko 1 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura

Erkidearenak, 124 eta 39/2015. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

9. oinarria.- ESLEIPENA

- 9.1. Esleipenik lortuz gero, berori eskaturiko ekipamenduari egokituko zaio eta zenbatekoa ezingo da aldatu.
 - a. Eskaeran aipaturiko ezaugarriak dituen ekipoa zenbatetsitako kostua baino merkeago erosiko balitz, lortutako murrizketa bi finantzazioei aplikatuko zaie, betiere, eskaeran adierazitako baterako finantzazio portzentajea mantenduta.
 - b. Eskaeran aipaturiko ezaugarriak dituen ekipoa zenbatetsitako kostua baino garestiago erosiko balitz, aldea talde eskatzaileak jarri beharko du.
- 9.2. Diruz lagundutako ekipamendua erosteko, [UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuak](#) ezarritako prozedurei jarraituko zaie. Lizitazio bat egin behar izanez gero, INak aipatutako zerbitzuarekin jarri beharko da harremanetan, dagozkion izapideak egiteko.
- 9.3. Diruz lagundutako funts bibliografikoak UPV/EHUko Bibliotekaren bidez erosiko dira. Horretarako, Ikerketa Errektoreordetzak Bibliotekari bidaliko dio eskaera.
- 9.4. Ordezkatutako ekipo zaharkituak Ikerkuntza errektoreordetzari adskribatuko zaizkio. Ekipoaren egoeraren arabera eta irakaskuntzan izan litzakeen aplikazioak aintzat hartuta, errektoreordetzak erabakiko du behin betiko kendu edo irakaskuntzan zein bestelako erabileran xedatzea.

10. oinarria.- JARRAIPENA

- 10.1. Ikerketa Errektoreordetzak antolatuko ditu diruz lagundutako eskaerei jarraipena egiteko prozedurak.
- 10.2. Izapideak garaiz hasi beharko dira, espedienteak 2027ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon daitezen. Ikerketaren Gestiorako Zuzendaritzak ezarritako, ekipamendua erosteko prozesuaren hasieran, egin beharreko kontabilitate izapideak, UPV/EHUn erabilitako ekonomia gestiorako sistemarekin bateragarriak izango direnak.

11. oinarria. SUBENTZIOA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

- 11.1. Ikertaldeari diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira, betiere, helburua betetzen bada, edo ikertaldeak diru laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian laguntza esleitzeko ebazpena aldatzeko erabakia ekar lezake eta, horren bidez, emandako laguntza murriztea edo kentzea.
- 11.2. Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, IGBBk proposamena edo txostena eginda, erabakia emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorriari jarraiki. Erabakia ekipamendua erosteko laguntza eskatu zuen ikertaldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio. Jakinarazpenean laguntza zenbatean murriztu den, baliogabetutako laguntzaren ordezko finantzazioa aurkezteko zer epe dagoen eta, hala badagokio, ekipamendua kontratatzeko prozesua baliogabetu beharra dagoen ala ez adieraziko da.
- 11.3. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:
 - a. Eskatzaileak eskaeran adierazitako ekipamendua erosteari uko egiten dionean, laguntza horretarako eman bazen ere.

- b. Laguntza eman ondoren edo ekipamenduaren kontratazio prozesuan zehar, eskaeran adierazitako ekipamenduaren oinarriko ezaugarriak aldatzen direnean, ekipamenduezberdina dela interpreta badaiteke. Nolanahi ere, ezaugarriak lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzen prozesuaren parte gisa aldatzen badira, eskaintza onartzeko Ikerketa Errektoreordetzaren oniritzia beharko da, egindako aldaketek ekipamenduaren ezaugarriak hobetzea edo ekipamendua aldatzea dakarten erabaki ahalizateko.
- c. Ekipamendu bererako beste iturri batetik diru laguntza jasotzen denean alde aurretik Ikerketa Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- d. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- e. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- f. Gastu bera aurrekontuko atal organiko bati baino gehiagori egozte.
- g. Deialdi honek diruz laguntzen ez dituen gastuak egiten direnean.
- h. Proposatutako ekipamendua UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatuko prozedurak urratuz erosten denean.

Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo edozein erosketa eginez gero, laguntzaren emakida itzuli beharko da, eta une horretara arte erabili gabeko finantzazioa kenduko da.

12. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko araei.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

13. oinarria. EMAITZEN BERRI EMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA

Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUn filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegiaren aurrean, hura argitaratu eta hilabeteko epean. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke Ikerketa errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2026eko otsailaren 9an

Jon Umerez Urrezola
Ikerketa Errektoreordea